

HERRI ITUNAREKIN DUGUN KONPROMISOA DEFINITZEKO IBILBIDEA



Hitzetatik ekintzetara. Nire erakundetik nola lagundu dezaket berdintasunean aurrera egiten eta Herri Ituna sustatzen?

TOKIAN TOKIKOARI BURUZKO GOGOETA EGINEZ, GLOBALETIK ABIATUTA

Nazio Batuen arabera, **munduan herrialde bakar batek ere ez du lortu genero-berdintasuna, ezta emakumeak eta neskak ahalduz ere.** Emakumeari buruzko Munduko IV. Konferentzia egin zenetik 25 urte baino gehiago igaro direnean, gure buruari galdera hauek egin diezazkiokegu:

- Ba al dago oraindik Beijinggo Adierazpena eta Ekintza Plataforma betetzeari, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeari eta emakume eta neska guztien Giza Eskubideak erabat baliatzeari eragiten dien erronkarik?
- Desberdintasun estrukturalak agerikoagoak egin dira eta areagotu egin dira COVID-19ak sortutako krisiaren ondorioz?
- Eta garrantzitsuena, erakunde bakoitzak non ahal du lehentasunez eragin epe laburrean erantzun ahal izateko oraindik dauden genero erronka eta arrakala batzuei?

Galdera horiei erantzuteko, Euskadik erabaki zuen abian jartzea Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzeko aldeko Herri Ituna, berdintasunean aurrera egiteko erantzukizuna agerian uzten duen komunitate eratu bat sortzeko.

Nola egingo dugu?

Zuen erakundeak aldaketari laguntzeko zer konpromiso bultza ditzakeen identifikatu.

Hirugarren une honetan, zuen erakundeak edo lan-esparruak berdintasunaren arloan zer erronka dituen pentsa dezazuen nahi dugu.

Urrats horretan laguntzeko, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko erronka premiazkoenak identifika ditzazuen, hemen txertatzen dizkizuegu herrialde gisa **10 jarduera eremutan** hartu ditugun **konpromisoak**.

Justizia ekonomikoa

01

- Emakumeen autonomia ekonomikoa bultzatzea.
- Lan duina bultzatzea jarduera tasa handitzeko.
- Euskadiko soldata arrakala eta pentsio arrakala txikitzea.
- Euskadiko enpresa eta erakundeen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromisoa indartzea.

Emakumeak eta neskatoak ahalduntzea

02

- Emakumeak eta neskatoak ahalduntzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko ezinbesteko baldintzat hartzea, Emakumeari Buruzko Munduko IV. Konferentzian adierazi zen bezala (Beijing, 1995).
- Emakumeek erabakiak askatasunez hartzeko aukera izan dezatela bermatzea.
- Heziketa sexual holistikoa bultzatzea; emakumeek haien gorputzari, sexualitateari eta ugaltze-bizitzari buruz erabakiak autonomiaz hartzea bultzatzea.
- Mekanismoak garatzea: emakumeak beraien bizitzaren protagonistak izatea lortzeko, baita Euskadiko bizitza sozialaren, ekonomikoaren eta kulturalaren protagonistak izatea ere, eta “kristalezko-sabaia” gainditzen laguntzeko.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista

03

- Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria matxista desagerraraztea eta indarkeria hori giza eskubideen bortxaketa larritzat hartzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea garatzea.
- Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria matxistaren aurrean instituzioen arteko koordinazioa eta esparru publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzan sakontzea.
- Haurrak oso txikiak direnetik indarkeria matxista saihestea, gizonetzkoen eta mutikoen parte-hartzea bilatuz. Era berean, indarkeria mota ezkutukoena hobeto antzematea.

Hurtzaroa eta nerabezaroa

04

- Erraztea haurrek oso txikitatik ikastea pertsona guztiok berdinak gabela.
- Hezkidetzaren bultzatzea hezkuntza komunitatetik desberdintasunak txikitzeko.
- Belaunaldi gazteenek ikastea desberdintasunak eta emakumeen aurkako bereizkeria identifikatzen.
- Emakumeen giza eskubideen eraikuntzan eta garapenean aurrekari eta erreferentzia izan ziren emakumeak ezagutzea.

Zaintzak

05

- Zaintzek pertsona guztien ongizaterako eta elkarbizitzarako duten berebiziko garrantzia aitortzea.
- Alderdi publiko eta pribatuan emakumeen eta gizonen arteko zaintzen erantzukizun partekatua bultzatzea.
- Zaintzen banaketa justuagoa bultzatzea.
- Zaintzen sektoreari duintasuna ematea eta baldintzak hobetzea.
- Etxeko lanak eta zaintzak egiten dituzten pertsona zaugarriek ere beren burua zaintzeko neurriak bultzatzea.

Gizonen eta mutikoen inplikazioa

06

- Desberdintasunak eta egitura hierarkikoa dituen gure gizarte-eredu honetan, gizonezkoek kontuan hartzea gizarte-talde gisa pribilegioak ematen dizkien botere-egoeran eta posizioan daudela.
- Ohartzea berdintasunerantz aurrera egitea bakarrik ez dela emakumeen zeregina.
- Agerian jartzea berdintasuna gizonen eta mutikoen eta gizartearen onurarako ere badela.
- Maskulinitate eredu tradizionala zalantzan jartzea eta beste maskulinitate batzuk bultzatzea.

Trantsizio ekologikoa

07

- Lurraren berotzearen eta Euskadin dituen ondorioen aurrean konponbideak bilatzeko prozesuari emakumeek eta emakumeen erakundeek eskaintzen duten jakintza gehitzea.
- Politika publikoek eta gizarte jarduerak ekomendekotasuna kontuan hartzea, pertsonak erdigunean jartzea eta emakumeek pairatzen dituzten desberdintasunak ez areagotzea sustatzea.
- Ekonomia berdeak deritzanak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzea emakumeen enplegu tasa handitzeko.
- Informazio eskuragarria sortzea, pertsona guztiek klima-aldaketa eta horrek generoaren arabera dituen ondorioak uler ditzaten.

Eraldaketa digitala

08

- Teknologia digitalak aprobetxatzea, ikuspuntu feministatik abiatuta, generoen arteko berdintasunerantz aurrera egitea ahalbidetuko duten ereduak bultzatzeko eta indarkeria matxista gutxitzeko.
- Neskatoek eta emakumeek STEAM (zientzia, teknologia, ingeniari, arteak eta matematikak) hezkuntzarekiko duten interesa eta konpromisoa handitzea.
- Diseinuaren, ekoizpenaren, berrikuntzaren, eta teknologien lidergoan ari diren emakumeak bistaratzeko ekintzak bultzatzea.
- Arrakala digitalak emakumei gehiago eragiten diela kontuan hartzea.

Emakumeen mugimenduak eta lidergo feministak

09

- Aintzat hartzea emakumeek eta feminismoak Euskadiren garapenean eta berdintasunerantz aurrera egitean izan duten rola.
- Baliabideen bidez laguntzea emakumeen erakunde, talde eta sareak, edota emakumeen eta neskatoen eskubideak defendatzen dituztenak.
- Desberdintasun handiagoak dauzkaten errealitateen (migrazioa, desgaitasuna, indarkeria matxista, landa-bizitza) erakusle diren emakume taldeen ahotsa entzutea ahalbidetuko dituzten espazioak sortzea.
- Emakumeen mugimenduekin eta feministak diren eta Euskadin berdintasunaren alde lan egiten duten taldeekin aliantzak sortzea.

Gobernu ona

10

- Behar eta orotariko egoerak, eta emakumeen eta gizonen interesak kontuan hartzen dituztela ziurtatzeko ezinbesteko estrategia gisa genero ikuspegia txertatzeko aukera kontuan hartzea.
- Arlo guztietan emakumeen kontrako desberdintasuna ahalbidetzen dituzten arrazoiak ikertzea eta ikusaraztea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunera bideratutako baliabideak handitzea.
- Instituzioen artean berdintasunaren aldeko lankidetzeta eta koordinazioa bultzatzea.
- Berdintasunerantz aurrera egiteko egiten den lanaren eta horren ondorioen kontu ematen dela ziurtatzea.



GEHIAGO JAKIN NAHI BADUZU...

Datozen urteetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzeko erronka garrantzitsuenak zeintzuk diren aztertze aldera tresna gehiago izateko, [kontsultarako material](#) hauek proposatzen dira.

- [Itunaren dosierra](#)

Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko Herri Ituna (2022-2026) bultzatu den prozesua azaltzen

duen dokumentua da, eta Euskadik berdintasunean aurrera egiteko hartu dituen konpromisoak jasotzen ditu.

- **Genero berdintasuna. Beijingetik 25 urtera: emakumeen eskubideak luparen azpian**

Nazio Batuek 2020an egindako dokumentu ikusgarri eta pedagogikoa da. Bertan, Emakumeari Buruzko Munduko IV. Konferentzian proposatutako helburuak eta xedeak lortzeko, munduak eutsi egin behar dien aurrerapen eta erronka nagusiak aztertzen dira.

- **Adierazpen politikoa, Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Konferentziaren 25. urteurrena dela eta**

Nazio Batuek 2020an egindako dokumentua da. Bertan, Emakumearen Egoera Juridikoaren eta Sozialaren Batzordearen 64. bilkuraldia dela eta, gobernuek egindako aurrerapenak aitortzen dituzte, eta onartzen dute herrialde batek ere ez duela lortu genero berdintasuna, ezta emakumeak eta neskatoak ahalduntzea ere. Testuinguru horretan, Ekintza Plataforma ezartzeko erronka nagusiak eta horrek dituen kezka bereziko 12 esferak identifikatzen dira.

- **Garapen Jasangarrirako Agenda**

Giza garapena jasangarria izan dadin gizarte, ekonomia eta ingurumen alorrean ekintza plan unibertsala, integrala eta eraldatzailea. 17 helburu identifikatzen ditu pertsonentzat eta planetarentzat.

Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) ekintzarako dei orokorra dira, pobreziarekin amaitzeko, planeta babesteko eta mundu osoko pertsonen bizitzak eta espektatibak hobetzeko. 2015ean, Nazio Batuetako estatu kide guztiek 17 helburuak onartu zituzten, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren parte gisa. Agenda horretan, helburuak 15 urtean lortzeko plan bat ezartzen da.

- **Agenda Euskadi Basque Country. Euskal Ekarpena Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari**

Euskadi Basque Country 2030 Agendak Gobernu Programaren eta programa hori garatzen duten politika sektorialen bat-etortze eta ekarpen maila islatzen du, 17 GJHei lotutako helburu eta jomugekin. Horrela, Nazio Batuen Gobernu Programa eta Agenda lotzen ditu.

Dokumentu gehiago:

- **I. Euskadi Basque Country 2030 Agendaren Jarraipen Txostena. 2020. urtea.**
- **Emakumearen Nazioarteko Eguna 2021: COVID-19aren pandemia erronka handia da genero berdintasunerako**
- **Berdintasuna pandemia garaian. COVID-19aren eragina genero ikuspegitik**